

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

WebPen-a, gaur egun, teknologia munduan sartuta dagoen jendeari zuzenduta dago.

Batik bat, enpresariei, ikasleei, irakasleei... Gehienbat, 15 urtetik gorako eta 65 urtetik beherakoei gomendatzen diegu WebPen-a erostea, teknologian abilezia eduki behar delako.

349,99 euro balio dituen ez, ezingo dute familia askok produktu hau erosi, baina, urteak pasa ahala, WebPen-aren prezioak behera egingo duela aurreikusten dugu.

Eskolatan ez daude ordenagailuak denentzat eta WebPen-a praktikoa izan daiteke, ikasleek ezin dituztelako mugikorrek erabili, eta gure produktua erabiliz, eskolek ez lukete informatika gelarik eduki behar, edozein lekutan ibil baitaiteke gure produktua.

Laburbilduz, beraz, bi segmentu bereiziko ditugu. Alde batetik, ikasleei zuzendutakoa eta bestetik, langileei zuzendutakoa. Batez ere bi merkatu hauentzako zuzenduta egongo da, iruditzen zaigulako hainbat perfilen beharrak asetzen dituelako eta beraientzat oso egokia izan daitekeelako.